

Matematikak guztien eskura jarriko dira berriro Bilboko Bidebarrieta liburutegian aste honetan hasiko diren hitzaldiekin

Beste urte batez, Zientzieren Astearekin bat eginez, "Matematikak eguneroko bizimoduan" hitzaldi zikloa egingo da Bilboko Bidebarrieta liburutegian hiru ostegun jarraietan, hau da, (azaroaren 12an, 19an eta 26an. Hitzaldi ziklo honek -aurten bosgarren edizioa da- matematikaren sekretu eta bitxikeriak azalduko ditu jendaurrean "era zorrotz baina atseginean". Seguir leyendo el artículo

David Martin de Diego, Miquel Barcelo eta Julian Agirre matematiketan doktoratuak eta unibertsitateko irakasleak izango dira hitzaldiak eta diziplina honen aplikazioak azalpen akademikoetatik hurrunduz azalduko dituztenak. Bidebarrietako liburutegiko ekitaldi aretoan izango dira hitzaldiak, 19:30etan, eta doako sarrerarekin, antolatzaileek jakinarazi dutenez.

Inaugurazio ekitaldiko hitzaldia David Martin de Diego irakasleak emango du, bihar. "Matemáticas celestiales" izenburupean, zibilizazio ezberdinek astroen mugimenduak ulertzeko zuten moduz arituko da Martin de Diego, eta misterio honen ulermenerako azalpenen bilaketan, historiako matematikari onenek gaur egun oraindik erabiltzen diren kontzeptuen garapenaren inguruan arituko da.

Bestalde, Miquel Barcelo Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko Lengoaiak eta Sistema Informatikoak Saileko katedraduna zientziak fikziozko hainbat istoriotan duen eraginaren inguruan ariko da hilaren 19an. "De Moebius a Flash Gordon: las matemáticas en la ciencia ficción" izenburupean, diziplina honek askotan gogoetarako narratiba ahalbidetzen duela azalduko du. Julian Agirrerekin itxiko da aurten hitzaldi zikloa azaroaren 26an; Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Matematika Analisisian katedraduna da Agirre. "De lo simple a lo complejo: fractales y caos" izenburupean emango duen hitzaldian, printzipio batean aurreikusi daitekeen prozesu baten errepikapenaren ondorioz, anabasa nola sortu daitekeen azalduko du, eguraldi iragarpenak bezalako adibide soilak erabiliz. Adibidez, "Tximeleta efektua" deritzonaren azalpena ulertu ahal izango da hitzaldi honetan. "Matematikak eguneroko bizimoduan" zikloa Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak antolatu du Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Zientzia eta Teknologia Fakultatearekin eta Matematikaren Espainiako Erret Elkartarekin elkarlanean.